

han-hemen

Willy Brandt kantziler ohiaren semeak aitaren dimisioa eragin zuen espioiaren rola jokatu du

Matthias Brandtek, Alemaniako kantziler ohi Willy Brandten semeak, aitaren dimisioa eragin zuen espioiaren rola bete du telesail batean. Matthias Brandtek 42 urte ditu, aktorea da, eta Alemaniako telebista publikoak grabatuko duen telesail batean ariko da. Ekialdeko Alemaniaren zerbitzuan aritu zen Guillaume espioiarena egingo du. 1974an, Alemaniako kantziler Willy Brandtek dimisioa eman zuen, eta hori egin aurreko 12 egunak jasoko ditu telesailak. Guillaumek Brandten aholkulari jardun zuen urte luzeetan, Ekialdeko Alemaniari informazio sekretua ematen ziola jakin arte. Auziaren erantzukizun osoa Billy Brandtek hartu zuen, eta kargua utzi.

Emakume batek ama izatea lortu du 54 urterekin

Peruko Norma Lazo Villanuevak bere lehen haurra izan du, *in vitro* ernakultza-aren bidez. Norma Lazok 54 urte ditu, eta terapia berezi bati esker geratu da haurdun. Haurdunaldia arriskutsua zen emakumearentzat, adina zela eta. Horregatik, 36 asteko haurdunaldiaren ostean, medikuek ebakuntza egitea erabaki zuten. Zesarearen bidez, 2,210 kilo eta 44 zentimetroko alaba etorri zen mundura. Biak osasuntsu daude: ama, Lima-ko ospitale batean dago, eta alaba, berriz, inku- bagailuan sartu dute.



FRANCOIS MORI / AP

'Glamour'-a, lur jota

Argazkian lurrean ageri den modeloak ez du berehalaxe ahantziko

Versacek neguko bilduma erakusteko herenegun egin zuen desfilea.

Unerik okerreanean estropezu egin, eta xarma edo 'glamour' guztia lurrrera joan zitzaion.



JACQUELINE MARQUE / AP

Txakurra ere Harley-Davidsonen zalea

Ray Boulay estatubatuarra Harley-Davidsonen zale amorratua da, eta haren txakurra ere, 3 urte eta erdiko *bulldog*-ak, motoaren xarma maitatzen ikasi du. Boulayren gida-laguna da txakurra.



ITAR-TASS / AP

'Samson' jirafari lagun berria ekarri diote

Moskuko zooko *Samson* jirafa nahiko goibel zebilen azken hilabeteetan, eta arduradunek lagun berria ekarri diote, *Lyuba* izenekoa. *Lyuba*-k bost hilabete ditu, eta 2,6 metro. *Samson*-ek ongi hartzea espero dute arduradunek.

Brasilgo abeslari batek bertan behera utzi du ezkontza, senargaiak jipoia eman diolako

Gretchen Brasilgo abeslariak ezkontza bertan behera uztea erabaki du, senargaiak jipoitu ondoren. Senargaia karate maisua da, eta, antza, atzo gauean mozkortuta heldu zen etxera. Bikoteak sesioa izan zuen, eta senargaiak hainbat kolpe eman zizkion andregaiari eta haren amari. Ezkontzarako 600 gonbidatu zeuden, baina, tratu txarren ostean, ez da ezkontzarik izan.


Caetano Velosok Ronaldoren elastikoarekin abestu zuen Erroman

Brasilgo abeslari Caetano Velosok Erroman abestu zuen atzo, Karakalaren termetan, eta, azken abestietan, Ronaldo futbol jokariaren elastikoarekin aritu zen. Futbolari egingako omenaldi moduko horrekin amaitu zuen kontzertua brasildarrak. Velosok arrakasta itzela du Italian, eta duela egun batzuk amaitu ziren sarrerak. Brasilgoak ez zuen huts egin, eta milaka lagunek txalo zaparrada amaigabea jo zioten kontzertua amaitu ostean.

hilberriak

ESKELAK

Gaueko 9ak arte hartzen dira



(0034) 943 300 222